

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2020ko otsailaren 4ko 47 zk.dun Alkatetza Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, Zigoitiko udalerriko kontzejuentzako diru-laguntza deialdia ireki da, norgehiagoka bidezko lehiaketa-prozedura bidez

BDNS (Identif.): 495209

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat eginez, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsultatu daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

Lehenengoa. Onuradunak

Honakoak dira deialdiaren onuradunak: legez eraturako kontzejuak, eta Zigoitia udalerrian erregistratuta daudenak.

Bigarrena. Helburua

Diru-laguntzak honako helburua du: Udalerriko Kontzejuak sustatutako obrak, herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko zerbitzu publikoak garatzeko helburua dutenak, finantzatzea:

Zerbitzu publikoetarako ondorengo obrak:

Kontzeju-Etxearen edo herritarrentzat zerbitzu publikoa ematen duten bestelako erakinetan obra berria, birgaitze-lana edo konponketa-lanak.

Kirol-ekipamenduetan obra berria, birgaitze-lana edo konponketa-lanak.

Umeentzako jolas-eremuetan obra berria, birgaitze-lana edo konponketa-lanak.

Herriguneko berdeguneak eta lorategiak dituzten eremu publikoetan obra berria, birgaitze-lana edo konponketa-lanak.

Hiri-lurzoruetako kale publikoetako zoladuran, Batzarren jabetzako herrigunerako sarbideetan eta hilerrirako sarbideetan obra berria, birgaitze-lana edo konponketa-lanak.

Obra berria, birgaitze-lana edo konponketa-lanak, honako zerbitzuak lurperatzeko eta kanalizatzeko lanetan: argiteria publikoa, etxez etxeko ur edangarriaren hornikuntza-sarea eta euri-uren eta ur zikinen saneamendua, elektrizitatea eta telefonia, eta beren instalazioak.

Obra berria, birgaitze-lana edo konponketa-lanak, bidaiarien garraio publikoaren zerbitzura zuzendutako markesina edo antzekoetan.

Hilerria konpontzea eta/edo eraikitzea.

Kontzejuetako elementu bereziak birgaitzeko edo konpontzeko lanak: ermitak, iturriak, errota, garbitokiak, elizak... Administrazio Batzarren jabetzakoak direnean, edo, beraien jabeak, elementu horien jabetza edo erabilera dagokien Administrazio Batzarrari laga diotenean. Erabilaren lagapena indarrean egon behar da eskaerak aurkezteko epea amaitzeko egunetik kontatzen hasi eta hamar urteko epean.

Bide publikoetako seinaleztapen-lanak.

Nekazaritza-erabilerarako bideetako berrikuntza- eta konponketa-lanak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza hauen kontzesioaren oinarri arautzaileak hemen daude jasota: Zigoitiko Udalak Kontzejuei diru-laguntzak emateko Ordenantza espezifikoa, 2017ko abenduaren 20an onartua, eta ALHAOren 20 zk.an argitaratua 2018ko otsailaren 16an.

Diru-laguntza hauek emateko prozedura, norgehiagoka bidezko lehiaketaren erregimenaren menpeko izango da. Aurkeztutako eskaeren konparaketa egingo da, eta eskaeren lehentasunaren arabera ordena ezarriko da, deialdi honetan zehaztutako balorazio-irizpideekin bat eginez. Esleipena, hurrengo puntuan zehaztutako muga kontuan hartu eta aipatutako irizpideak ezarrita balorazio handiena jasotzen dutenentzat egingo da.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honetan ezarritakoa betez aurkeztutako eskaeren arabera emandako diru-laguntzen finantzazioa honako aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio: 2020ko aurrekontuaren 943.734.000 zenbakiduna, "Kontzejuek inbertsioak egiteko diru-laguntzak" izenarekin.

Deialdiko laguntzen gehienezko guztirako zenbatekoa 175.000 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko epea 2020ko apirilaren 8an amaituko da.

Eskaerarekiin batera, ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

Eskaera ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

Diruz lagundutako jardueraren justifikazio-memoria, eta, bertan, adierazi beharko da, guxtienez, egin beharreko obraren deskribapen laburra, kokaleku fisikoa eta egin beharreko lanen zerrenda.

Obraren aurrekontua.

Seigarrena. Justifikazioaren epea eta modua

Diru-laguntza jasotzeko, beharrezkoa izango da Udalari ondorengo dokumentazioa aurkeztea:

Onuradunak sinatutako eskabidea, Alkatetzari zuzendua. Bertan eskatu beharko da diru-laguntza ordaintzeko, eta transferentzia egin beharreko kontu zenbakia zehaztu beharko da.

Egindako gastuaren jatorrizko fakturak, edo horien fotokopia konpultsatuak.

Aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren ziurtagiriak.

Beste erakundeetatik jasotako diru-laguntzen egiaztagiriak.

Justifikaziorako dokumentazioa 2020ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar da.

Ondategin, 2020ko otsailaren 7an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA